

INSTAGRAMEN DONOSTIA JOKOA ZOZKETATZEKO OINARRIAK

Donostia jokoa mahai joko bat da, non **Donostiako** kale, denda eta **elementu garrantzitsu batzuk** agertzen diren irudikatuta, oka joko tradizionalan eta *Monopoly*-an antzera. Taulan hiriko auzoak eta elementu nabarmen batzuk agertzen dira, eta horien artean **Dbuseko autobus geltokiak** daude, zeintzuen bitartez laukien artean mugitu ahal izango garen eta helmugarantz aurrera egin.

Jokoa kaleratu dela eta Dbusek parte hartu duela ospatzeko, erabiltzaile leialenak saritu nahi ditugu Dbusen Instagrameko profilaren jarraitzaileen artean Donostia Jokoaren bi unitate zozketatuz.

1) PARTE HARTZEKO EPEA:

Parte hartzeko epea abenduaren 14an, ostiralean, hasiko da eta abenduaren 19n, asteazkenean, bukatuko. Abenduaren 20an ezagutaraziko dira irabazleak Dbusen Instagrameko profilaren bitartez.

2) PARTE HARTZAILEAK:

Dbusek Instagraman duen profilaren (@dbusdonostia) jarraitzaile guztiek parte hartu ahal izango dute zozketan. Parte hartu nahi duten pertsonak Dbusen Instagrameko profilaren jarraitzaileak izango dira, dela zozketa argitaratu aurretik, dela zozketa argitaratu ondoren.

Dena dela, ez dira onartuko zozketa egunean, hau da, 2018ko abenduaren 20an, ostegunean, Dbusen Instagrameko profilaren jarraitzaile ez direnak.

3) ZOZKETAREN MEKANIKA:

Parte hartzaileek jokoari buruzko iruzkin bat utzi beharko dute zozketa argitaratzen denean.

4) PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

Baztertu egingo dira irain, hitz erasotzaile, lizun edo gaizki ulerturen bat eragin dezaketenak dauzkaten iruzkinak.

5) IRABAZLEEN AUKERAKETA

Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten bi irabazleak aleatorioki aukeratzeko, erakundeak aplikazio bat erabiliko du.

Irabazleak abenduaren 20an ezagutaraziko dira. Erakundea irabazleekin jarriko da harremanetan, Instagramen duten profilen bitartez.

6) OPARIA JASOTZEA:

Zozketaren irabazleek **Dbusen instalazioetan** (Fernando Sasiain 7, 20015 Donostia) jaso beharko dute beren saria, Donostia Jokoa. Zehazki, Erabiltzaileen Arretarako Zerbitzuan jasoko dute, irabazleen izenak argitaratu eta hurrengo **30 eguneko epearen barruan**. Epe horretan saria jasotzen ez dutenek ezin izango dute geroago jaso.

Jokoa ezingo da eskudiruarekin, diru txartelekin edo inolako bonorekin trukatu.

7) OHARRA:

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek onartzea eta epaimahaiak hartutako erabakiekin ados egotea, erabakiak apelaezinak izango baitira.

Dbusek eskubidea du oinarri hauetan jasotzen ez diren gertaerak ebazteko.

(BASES EN CASTELLANO)

BASES PARA EL SORTEO DE JUEGO DE DONOSTIA EN INSTAGRAM

El juego de Donostia es un juego de mesa que reproduce calles, comercios y **elementos significativos de San Sebastián** al estilo del tradicional juego de la oca y el *Monopoly*. En el tablero están representados los diferentes barrios de la ciudad y diversos elementos destacados, entre ellos las **paradas de autobús de Dbus**, que permiten trasladarse entre casillas y avanzar hacia la meta.

Para celebrar el lanzamiento del juego y la participación de Dbus, queremos premiar a los/as usuarios/as más fieles sorteando dos Juegos de Donostia entre los/as seguidores/as del perfil de Dbus en Instagram.

1) PLAZO DE PARTICIPACIÓN:

El plazo de participación será del viernes 14 de diciembre al miércoles 19 de diciembre. El 20 de diciembre se harán públicos/as los/as ganadores/as a través del perfil de Dbus en Instagram.

2) PARTICIPANTES:

Podrán participar todos/as los/as seguidores/as del perfil de Dbus en Instagram (@dbusdonostia). Las personas que quieran participar podrán ser seguidoras del perfil con anterioridad a la publicación del sorteo o haber comenzado a seguir el perfil de Dbus en Instagram tras la publicación del sorteo.

En cualquier caso, no se admitirán participantes que no sean seguidores del perfil de Dbus en Instagram a fecha del sorteo, el jueves 20 de diciembre de 2018.

3) MECÁNICA DEL SORTEO:

Los/as participantes deberán dejar un comentario relacionado con el juego en la publicación del sorteo.

4) CONDICIONES DE PARTICIPACIÓN:

Se excluirán de la participación aquellos comentarios que contengan insultos, palabras ofensivas, obscenas o que pudieran ser malinterpretadas.

5) ELECCIÓN DE LOS/AS GANADORES/AS

La organización utilizará una aplicación para seleccionar aleatoriamente a dos ganadores/as que cumplan con los requisitos establecidos en las presentes bases.

Los/as ganadores se harán públicos el 20 de diciembre. La organización se pondrá en contacto con ellos/as a través de sus perfiles en Instagram.

6) RECOGIDA DEL REGALO:

Los/as ganadores/as del sorteo deberán recoger su premio, el Juego de Donostia, **en las instalaciones de Dbus** (Fernando Sasiain 7, 20015 Donostia), en Atención al Usuario/a, en un **plazo máximo de 30 días** desde la publicación de los/as ganadores/as. Quienes no recojan su premio en ese plazo, perderán el derecho a recogerlo con posterioridad.

El juego no será canjeable por dinero en efectivo, vales o bonos de ningún tipo.

7) NOTA:

La participación en el sorteo supone la aceptación de estas bases y la conformidad con las decisiones de la organización, las cuales serán inapelables.

Dbus se reserva el derecho de resolver aquellas incidencias que no estén contempladas en estas bases.